

**EUSKO JAURLARITZAREN
ETA FORU ALDUNDIEN
2008ko AURREKONTU-EMAITZA**

AURKIBIDEA

- 1. 2008an, zerga-bilketa txikiagoaren ondoriozko defizita**
- 2. Diru-bilketaren gutxipena ez da batere komenigarria krisi-garaian**
- 3. 1998az gero pilatutako superabita 5.724 milioi eurokoa da**
- 4. Superabit orokorra 1998az gero EAEn**
- 5. Europar Batasunean baino defizit txikiagoa 2008an**

1. 2008an, ZERGA-BILKETA TXIKIAGOAREN ONDORIOZKO DEFIZITA

Euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek) 518 milioi euroko defizitaz itxi dute 2008ko urtealdia. Horrek esan nahi du ekitaldi horretan administrazioen diru-sarrerak gastuak baino txikiagoak izan direla.

Horren arrazoia diru-sarrerek 2008an izan duten gutxipen nabaria izan da, gastuekin jazo ez dena. Foru Aldundiek, zehazki, 718,1 milioi euro –%4,9– gutxiago bildu dute zerga itunduen bidez. Zerga-bilketa urriagoaren arrazoiak honako bi hauek dira:

- 1.- BEZaren bidez 572 milioi euro gutxiago (%11,8) bildu dira, zerga-iruzurraren hazkundeagatik, zalantzarik gabe. Bestela ezin da azaldu nola urritu ahal den BEZaren bidez bildutakoa, kontsumoa hazten delarik, 2008an gertatu den bezala.
- 2.- Sozietateen gaineko Zergak eragindako bilketa 342 milioi euro txikiagoa (%16,8) izan da. Urripen horren arrazoia administrazioak onartutako zerga-erreformak izan dira, ekonomiaren atzeraldia barik. Izan ere, 2008an zerga horren bidez bildutakoa batez ere 2007ko urtealdiko likidazioari dagokio, hau da, ekonomia oraindik atzeraldian sartu gabe eta enpresen mozkinak handitzen segitu zuteneko garai bati.

2. DIRU-BILKETAREN GUTXIPENA EZ DA BATERE KOMENIGARRIA KRISI-GARAIAN

Zerga-bilketa urritzea ez da batere gertaera onuragarria, gizarte-babeseko gastua erabat baldintzatzen duelako. Baina oraingoaren moduko krisi-garaietan are kaltegarriago suertatzen da. Administrazioaren zereginak alderantzizkoa izan beharko luke; hau da, ekonomia sustatzeko, gastu handiagoa egin beharko luke gizarte-prestazioetan eta zerbitzuetan, hala nola menpetasuna duten pertsonen eta umeen zainketan, osasunean, hezkuntzan, eta abar. Horrelako prestazio eta zerbitzuak zinez beharrezkoak dira gizarte-babesaren arloan ditugun gabeziak estaltzeko eta Europar Batasuneko mailara heltzeko. Gainera, zerbitzuok garatzeko sortu behar diren lanpostu ugariak iraunkorrak dira, azpiegituren eraikuntzarako sortutako lanpostuak ez bezala.

Administrazioen eginkizun keynesiarrari buruz maiz hitz egiten den arren, horretarako marjina eskasa dago, errenta handiei eta kapital-errentei zergak murrizten bazaizkie, eta zor publikorik jaulkitzen ez bada, euskal administrazioek ohi duten legez. Oraingo eskemak ez du gastua handitzeko aukerarik ematen, eta sail batzuen gastutik kendu eta beste sail

batzuenera bideratu beste irtenbiderik ez du uzten. Gaur egungo joera, funtsean, azpiegituretako gastua handitzea, finantza-sektoreari laguntzea eta enpresei diru-laguntzak ematea dela ikusirik, argi dago eredu neoliberalak aldatzeko inolako borondate politikorik ez dagoela.


3. 1998az GERO PILATUTAKO SUPERABITA 5.724 MILIOI EUROKOA DA

2008ko ekitaldia defizitez itxi den arren, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, salbuespena izan da Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) instituzioen ibilbidean, 1998az gero, bildutakoa baino diru gehiago gastatu den lehenengo urtealdia baita.

Bereziki azpimarragarriak dira 2008koaren aurreko 3 ekitaldiak, zeinetan superabita handia eta hazkorra izan den (866 milioi eurokoa 2005ean, 1.156 milioikoa 2006an eta 1.396 milioikoa 2007an).

2008ko urtealdiko defizita barne hartuta, azken 11 ekitaldietako balantzeak 5.724 milioi euroko superabita metatu dela erakusten digu.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA ALDUNDIEN AURREKONTU-EMAITZA
(MILIOI EURO TAN). 1998-2008



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, 2008ko 4. hiruhilekoko Aurrekontu Egikaritzeari buruzko Estatistikan oinarrituta


4. SUPERABIT OROKORRA 1998az GERO EAEn

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzarena ala Foru Aldundiena den arabera xehekatuko dugu aurrekontu-emaiza.

2008ko ekitaldian, Aldundiek 85,5 milioi euroko superabita lortzen jarraitu dute, eta Eusko Jaurlaritzak 603,5 milioi euroko defizitaz itxi du urtealdia. Hortaz, defizita Eusko Jaurlaritzari dagokio.

Hurrengo grafikoak Barne Produktu Gordinaren (BPGd) arabera neurturik agertzen ditu EJk eta Foru Aldundiek 1998tik 2008ra izan dituzten aurrekontu-emaizak. Aztertutako aldi osoan zehar, superabita ageri da emaitzetan (Foru Aldundiek 2001ean eta 2002an izan zituzten defizit hutsalak eta Eusko Jaurlaritzak, hemen aipatu dugunez, 2008an izan duena salbu).

EUSKO JAURLARITZAREN ETA ALDUNDIEN AURREKONTU-EMAITZA (BPGd %). 1998-2008



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, 2008ko 4. hiruhilekoko Aurrekontu Egikaritzeari buruzko Estatistikan oinarrituta


5. EUOPAR BATASUNEAN BAINO DEFIZIT TXIKIAGOA 2008an

EAEko 2008ko aurrekontu-emaiztan ageri den defizita ez da salbuespena Europa mailan, ondorengo grafikoak erakusten duenez, joera orokorra defizita da eta.

Are gehiago, EAEko defizitaren pisua 27-EB osokoa baino txikiagoa da. Zehatz esateko, EAEko aurrekontu-emaizta BPGd-aren $-0,7\%$ koa izan delarik ere, 27-EBko batez besteko aurrekontu-saldoa $-2,3\%$ koa izan da. Horrek esan nahi du EAEk 2008an BPGd-aren 1,6 puntu gehiagoko defizita (1.107 milioi euro gehiagokoa) izan zezakeela, 27-EBko batez besteko defizit-maila berean egoteko.

AURREKONTU EMAITZA (BPGd %), (-) DEFIZITA EDO (+) SUPERABITA.

27-EB, 2008



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Eurostaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.